

LAURAK BAT

Ez dakizue noz sortu zan alkargo baten izen au?

Bear ba'da, ez zeatz eta ondo. Orregaitik orain auxe da nire asmoa: Argi ta garbi orren kondaira edo edestia zein dan zabal argitzea.

Ego-Ameriketan, lurrez benetan aundia dan Arjentiña laterrian, sortu zan 1877'an. Zioa ta garaia, Foruen kenteagatitik erantzun sendoa emotea zan.

Argentiña'ko uriburu dan Buenos Aires'en 13 euskotar bizi ziran eta 1876'ko garagarrillaren 21'e an "Laurak Bat" bazkunari biziaa eta izena emon eutsoen, euren arteko euskaldunik zarrena buru eta nagusi zala.

Zein zan artezkari orren izena? Zein zan euren elburua? Zeintzuk euren asmoak?

Urtero antolatu edo eratu, Lege Zarra edo Foruak kenteak zelako atzerapaena ekarri eban Euskalerriarrentzat, erri au etorkizunerako itxartu, Argentina'n egozan euskaldun beartsuai laguntza emon, erlejiñoari ta euskal-jakintzari indarra emon, Europa'ra barriro etorri-bearrean egozanai lagundu, ekanduzko jai-aldiak ospatu, eurai arnasea emon eta bizkortu, eta ez bakarik euskaldunai, onein senar naiz emazteai be bai...

Sortu eta urtebetera, 425 bazkide eukazan bazkunak eta 1930n. urtean 1.000'ra eldu zan.

Lenago, 1880'an Eusko-kirolak indartzeko, pelotaleku bat egin eben "Plaza Euskera" eritxona. Zorrak garbitzeko eta kontuak bideratzeko eta batzokia eraikitzeko ortik atera eben dirua. "Coro euskaro" edo euskal-abestalde bat be sortu eben eta euskaldunen jakintza ta eusko-ekanduak asko indaru ziran.

Talde ta bazkide guzti onei eusteko ta iraun-azoteko, Belgrado kalean aurkitzen zan "Laurak Bat" ek artzen eban ardurea eta onein jokabidea onartuz, 1929 an euskalzalerik geienak batu jakezan, benetako erriki-deak.

XIX gizaldiaren azkenetan, Buenos Aires en iru giza-moltso euskaldun egozan eta Arjentiña'ko probintzian zear urtero alkartzen ziran txapelketak edo kirolak egiteko.

1940'ko jorraiaren 24'an Errekaborde'tar Martin Zuzendari Sule tarrak alegiñak egin ebazan, eritxi ez-bardiñak bat egiten eta guztien laguntzaz EUSKAL-ETXEA sortu eban. Erakunde onen onurea ondo eza-gutua da Ameriketan eta euskotarren garrantzia asko ugaritu dau.

Batzokiak bere ondoren on eta aundia artu eban. Beronek, illero, arpidedunen diru-laguntzaz baliatuz, euskotar umezurtzen eta babes-bakoen ardurea artu



Ar/enriña'n euskul giroa sortt eban 'Zuuruk Bal'ek.



eban, Landeretxe umezurtztegia eta beste eginbear asko beteteko iraspenak sortuta.

LETONA'k